




C. BUSQUETS

Nekanen gora-berak



MARGO-EDERDUN
IPIUAK

Neska Nupurzu
606445702



Ba-zan bost urteko neskatxo polit bat
Nekane izena ebana.
Arratsalde argi ta eguzkitsu batean,
basora joan zan,
Igone ta Ikerne bere lengusiñatxoekaz.
Kubi-kubika gogaitu ebenean
baso-lorak batzen ekin ziran.



Olako batean,
Nekane mitxeleta polit bat ikusi eban.
Lo egoan lore zuri baten gañean.
Eldu eutsan ego bietatik eta:
—E! Begira zelako mitxeleta!
—Itzi egiozu.—diñotso Igonek.

—Ez.—Nekane.

Egoak kendu ta neure liburutxoan gordeko dodaz.


—Olakorik ez!—diñotso Ikernek.

Baña Nekane zirt eta zart
atara eutsazan egoak mitxeleta gaixoari.



Gabean, Nekane bere oetxoan
lo goxoenean egoala,
zarata batzuk itzartu eben.


Begiak zabaltzean, Gizaundi bizar-luze,
arpegi-motz bat etorran beregana.
A izan zan Nekanen ikara ta dardara!



Eldu eutsan bere atzamar aundi latzakaz
eta egaz eta egaz,
mendi aundi baten gallurreraño eroan eban.
Sartu zan atx-zulo batean eta
mai zaar baten ganean itxi eban neskatxoa.
Gero, bere begi aundiak zabaldurik,
begira-begira jarri yakon.

—Aja... jai! Zeu zara orduan
gaur mitxeleta il dozun neskatxo!
Nekane negar eta negar asi zan.

—Nik ez neban il nai.
Bere egotxoak bakarrik nai nebazan.
Ain ziran politak!
Baña geiago ez dot
olakorik egingo.



Gizaundiak arpegi errukiorra jarririk diñotso:

—Berandu da neskatxo.
Orain, zeu be mitxeleta
biurtu bear zaitut,
urrengorako
ikasi dagizun.



Gizaundiak tximeleta-egoz beterik eukan
kutxa bat ekarri eban mai gañera,
eta polit-politen biak arturik,
pegamin apurbategaz
Nekanen sorbaldan jarri ebazan.



—Orain benetako tximeleta baziña lez
egin zeinkez egaz —esan eutsan Gizaundiak.
Baña zaindu zure egoak busti ez daitezcan,
eta ez joan umien ingurura.



Nekane laster zan
zelai loretsu batean.
Ara eta ona,
bizkor ebillan
bere ego ariñakaz.

—Begira, neskatxo-tximeleta!
Tximeletaren bat il dauala
esan nai dau orrek,
—eta beragandik iges
egiten eben mitxeleta danak.



Baña eguardian laguntzera joan yakoan,
eta lora artean janaria billatzen erakutsi eutsen.
Gero, illuntzean, euren etxera eroan eben.
Tximeletak Nekanen lagun aundiak egin ziran.




Bein batean, negar-zotinka asi zan Nekane.
—Zergaitik zagoz negarrez?—itaundu eutsen.

—Nire aita ta ama dodaz gogoan.
Bakarrik eta goibel egongo dira,
ta eurak ez dauke
nire okerkeriaren errurik.



Mitxeletak batu ziran zer egin erabakiteko.
—Gizaundi ori billatu bear dogu —esan eban batek.
Nekane neskatxo ona da eta
aurrerantzean ez dautse mitxeletari miñik egingo.
Bere etxera eroan bear dogu.




Danak alkarreagaz joan ziran.
Gizaundia bizi zan atx-zulora.

—Aske egidazuz egoak
—esan eutsan Nekanek.

Gizaundiak mitxeletari:
—Parkatzen dautsazue?

—Orixe baietz!
—Tximeletak erantzun.





Orduan Gizaundiak
irripar egin eban,
eta Nekanen egoak
berealaxe aldendu ziran.

Neskatxoa pozik eta
zoriontsu gelditu zan.

Ordutik aurrera, Nekanek
asko maite izan zituan tximeletak.
Politenak bere etxeko loratokira joaten ziran,
eta Nekanegaz kubi-kubika jolasten ziran.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.292 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Ästo-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria